

indeus
INDUSTRIAREN
EUSKAL
PLATAFORMA

2

# Euskararen sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari buruzko berriak, euskal kultura eta askoz gehiago!

indeus INDUSTRIAREN EUSKAL PLATAFORMA

1

# ‘Kolore bat’




Berde eta urdinaren kontrakoa da
azaleratzen den ura
ezagun da: kolore zahar bat

Otoitzak ere sailka daitezke
**esne-hortzeriak** sailka daitezke
esperantza eta haren falta ere
esperantza eta...




**Abestia**: Kolore bat
(Gorka Urbizu)

2

# Gutxieneko, gutxienezko

Gauza beraz ari al gara “gutxieneko” eta “gutxienezko” diogunean? Ala esanahi ezberdina dute?

- **Gutxieneko** da azpisarrera Euskaltzaindiaren Hiztegian (gutxienezko ez da batere ageri), eta, beraz, bera da forma egokia: gutxieneko soldata, gutxieneko distantzia, gutxieneko maila, gutxieneko ahalegina...
- **Gehieneko**/gehienezko bikoteari buruz ere gomendio bera da egokiena: gehieneko prezioa, gehieneko etekina...



3

# 'Cristobal Balenciaga' telesaila



Cristobal Balentziaga (Getaria, 1895 – Javea, 1972) jostunari buruzko telesailaren **lehen hiru atalak aurkeztu eta proiektatu zituzten urtarrilaren 22an**, Victoria Eugenia antzokian. **Moriarti** ekoiztetxeko **Jon Garañok, Jose Mari Goenagak eta Aitor Arregik** zuzendutako lana da, eta Disney Plus plataforman estreinatu zen urtarrilaren19an.

Hainbat kapituluko telesail formatuan zabalduko du Disney Plus plataformak eta, aurreikusitakoaren arabera, datorren urtarrilaren 19an estreinatuko dute. Gaztelerazko fikzioa izango da, elkarrizketa batzuk euskaraz izango baditu ere.

Informazio gehiago: [zinea.eus](zinea.eus)

# 4 Erakunde gisa, nola har dezaket parte Korrikan ?

Hamaika modu daude Korrikan parte hartzeko, hemen, labur-labur, batzuk:

- KORRIKA iragartzeko euskarriak babestuz
- Korrilakaria eskuratuz zein KORRIKA lagun izanez
- Kilometroak eskuratuz (bulegoetatik kudeatzen da hau)
- Korrikan bertan parte hartuz
- Ingurutik KORRIKA noiz pasako den zabalduz eta langileak parte hartzera animatuz
- KORRIKAren harira ekimen bereziren bat antolatuz



indeus

INDUSTRIAREN
EUSKAL
PLATAFORMA



# Mila esker!

## Hurrengo pilulara arte

**Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...**

i.lizeaga@elhuyar.eus